GENIO Y LENGUA edo Euskararen gizarte-arazoei buruzko pentsamendu-hastapenak

1990eko Azaroaren 7an zendu zitzaigun Aita Justo Mokoroa, bere izenez bezanbat ezaguna IBAR izengoitiz, 89 urte zituela. Tolosan jaio eta hautatu zuen apezgintzak hartara beharturik Tafalla, Huesca, Peralta, Iratxe, Zaragoza eta Chiletik barrena ibilitako elizgizon euskaltzale gartsua. Apezgintzak hartara alde horietara eraman baldin bazuen, euskalgintzak Hego Euskal Herria utzi eta bestaldera eraman zuen. Izan ere, 1936ko ekainaren 27an argitaratu zuen *Genio y Lengua* liburua eta bere euskalgintzaren arrastoak izkuta ezinak zirenez, gudu ankerrak ez zuen lekurik uzten Aitzol, Ibar eta antzekoentzat.

Euskara kezka-iturri bihurtzen denean

Aita Mokoroaren euskaltzaletasuna nola erne zen jakiteko, bere jaioterriko xehetasunak ezagutzea hoberena. Tolosa, mende honen hasieran, gaur ez bezalako hizkuntz egoerako herria zen Mokoroak berak jakin erazten digun bezala: "En aquel Tolosa y en aquella Guipúzcoa de mi mocedad no era el vascuen-

ce lo que para tantos ahora `una de tantas cosas que se asimilan o estudian en mayor o menor medida'; sino algo propiamente comparable a la atmósfera vital del espíritu; un elemento natural que, en cierto modo, formaba parte de nuestro ser íntimo. Era el vascuence lo que a toda hora respirábamos: en el hogar y en la calle, en el comercio, en la iglesia y en los juegos... Aprendíamos, sí, el castellano de nuestros maestros y de nuestros manuales escolares, y éramos capaces de hablarlo; pero sólo hacíamos uso de él lo imprescindible y para alternar con los forasteros, muy los menos todavía por entonces" ("Ortik eta emendik", Labayru-Eusko Jaurlaritza-Etor, 1990, 21. or.)

Halaz guztiz ere, ordutako minorizazio-prozesuetan azaleratzen diren hainbat datu eta zantzu igargarriak ziren eta Mokoroaren zolitasunak ez zuen huts egin horretan. Hizkuntz egoera hura kezkabide bilakatu zitzaion, gerora, bere bizitza osoan barrena, hain bere izan duen hizkuntz kemen-jatortasunaren auziagatik: "personalmente, fui muy sensible al cambio; y ya a sus primeros indicios o síntomas se despertó en mí la inquietud por la suerte de nuestro euskera... Una instintiva comparación me hacía notar la gran diferencia entre el habla de los euskaldunes netos y la de los influidos por el castellano... El vigor del idioma decrecía de una generación a otra, y con ello su valor y sus aprecio..." (Ortik eta Hemendik" 21. Or.)

Soineko jatorraren bila zebilen euskararentzat 1926ko hitzaldi batean aditzera eman zuen bezala. Ez zen garbizalekerian erori, Axularren idatz tankera hain goraki ezarri zuena, nahiz eta, gerora ikusiko den moduan, euskara idatzi standardizatuaren inguruko joan-etorrietan ikuspegi meharren zuloan amildu. Euskararen egoera diglosiko hark gure mintzaira jadanik barnetik pipiak jaten hasia zegoen eta harrobi bila abiatuta, hara nora proposatzen zuen: "Liburu zarretan; egoaizeak kutsatu gabeko baserri zokoetan; euskera beste mintzorik ez dakitenen ezpaiñetan... orra or non billatu dezakegun euskeraren mami berezia, mami gozo, ugaria, gizena ta gure-gurea" ("Euskeraren etorkizuna", Euskal Esnalea, 1928).

Garaian garaiko eta norberaren ingurune ideologikoak moldatzen baldin badu gizakumea, Aita Mokoroaren burubidetan hori are nabarmenago isladatzen da. Kapitalismoaren hastapen haietan, honen ondoriozko aldakuntza ideologiko-ekonomikoak ez ulertu ez onartu egiten zuen horietakoa izan genuen: korronte berrien aitzinean uzkur eta salatari agertu zitzaigun. Ondorio horien artean zegoen Euskal Herriko ordezkapen linguistikoaren efektua: eta hemen, aldiz, bere jarrera, puntu askotan, egungo eguneko euskara-militante batentzat eredugarri bihurtzen da. Azken boladan hainbeste aldiz aldarrikatu den "Euskararik gabe, Euskal Herririk ez" slogana, esango nuke, lerroalde honetatik aterata dagoela: "Prácticamente, se ha procedido como si se hubiese creído que no era la palabra *euskaldun* la definición real del *vasco*; que era posible poseer genio vasco sin euskera; o que para evitar la disipación del ser vasco *no urgía* salvar el euskara" (Genio y Lengua, 87. or.)

Bada besterik ere Aita Mokoroarekin bat etortzeko. Euskal nazionalismoak egun dituen hutsegite larriak, hots, beronen espainoltasun linguistikoa, ez da atzo goizekoa dirudienez. Orduko salaketak balio dute gaurkorako, eta alderantziz; Aita Mokoroaren hitzok indarrean diraute zoritxarrez: "Hay muchos que llevan `profesando' vasquismo años y *no saben*

euskera...; ni tienen intención seria de aprenderlo...; que parecen estimar no la realidad, sino el título de vascos; y cuyos fervores en este orden de cosas hallan holgada expansión en los `cumplimientos' formularios y de rúbrica consabidos; saludo, nombre `euskérico', ortografía impecable del apellido y de la toponimia". (Ibid.69.orr.)

Nazionalismoaren barnean indar politikoen hizkuntz jokabidea gaitzesten zuen Ibar-ek, egungo egunean hitzetik hortzera errepikatzen den kritika hain zuzen. Ulergaitza egiten zitzaion abertzaletasuna eta euskaltzaletasunaren arteko etena; exenplua eman behar zutenek ematen ez zutenez, euskararen zoria are kezkagarriago bilakatzen zitzaion. Berariaz aipatu zituen Batzokiak, euskalgintza eta politikagintza norabide kontrajarritan zebiltzala azpimarratzeko: "Y ¿que explicación satisfactoria se podrá dar del hecho averiguado de que en `Batzokis' de poblaciones bilingües no ya que se tolere por excepción, sino aún predomine el uso del erdera?. Citamos el batzoki por nombrar de algún modo la primera y más notoria forma social en que se traduce la inquietud vasquista, el ansia de regenerarse" (Ibid., 71.or.)

Euskal pizkundearen balorazioa egiterakoan ere, honen lorpenak gutxiesteko batere asmorik gabe, mugimenduaren mugak eta ezinak ez ditu estali nahi. Jaunak bidalia bailitzan, "un apóstol acaba de sacudir el letargo secular", abertzaletasunaren argia eta egia alderik alde hedatzen hasia zela pentsatzen du. Pizkundearen alderdi baikorrak nabarmen erazteko orduan, besteak beste, euskara lantzeko eta ikertzeko ahalegin-saioak azpimarratzen ditu: "No había de ser justo ni patriótico pasar por alto la actividad `particularmente' desplegada en los últimos cuarenta años por tanto obrero benemérito, lo mismo en el terreno de la investigación que en el del cultivo" (Ibid., 72.or.). Guztiarekin ere, egin den guztia dagoen dagoenean onetsiz, ez du askiesten. Mokoroaren diskurtsoa, zentzu hertsi honetan bederen, oraingoa berbera da. Alegia, egungo egunean eta euskal soziolinguistikako auzi-mauzitan sarturik dabiltzan gehien-gehienek mezu horixe nabarmen erazi nahi bait dute: hots, euskalgintzan azken urteotan egin dena, inoiz pentsaezina izango zitzaigula, baina hori burura eraman eta gero, burututakoaren indar-ahalmenak ezintasunez itorik daudela erdal itsasoaren baitan. Puntu honetan bertan bada egungo diskurtso euskaltzalean errepikatzen den beste ezaugarri bat. Euskal izatearen kontzientziaren kontua alegia, kontzientzi ideologiak gure hondamendi linguistiko-nazionala, besterik gabe, egintza-jardunetan mamitu gabe, Euskal Herria eraikiko baligu bezala. Hona, bada, alderdi makurren adierazpena tolosarraren aldetik: "No faltan, en efecto, otros indicios que confirman la conjetura y hasta hacen sospechar que en la ordenación del movimiento renacentista hemos exaltado sobradamente el papel de la `conciencia'y concedido a la lengua un valor no mucho más teórico" (Ibid.,69.or.).

Genio y Lengua gudu zibilaren atari-atarian argitaratu izanak autorearen atzerribideak eta liburuaren beraren isilbideak erakarri zituen. Antonio Zabalak honela esplikatzen digu ohiartzunik ezaren zergatia: "liburu ori oiu indartsu bat izan zan garai artan. Ala ere, etzuan bear ainbat oiartzunik eta fruiturik izan. Zergatik? Gerra andik berealaxe etorri zelako. Eta, danok dakigunez, euskerak ogei urteanedo ezin bururik altxatuz bizi bear izan zualako" ("Justo M. Mokoroa: Biografia. Lanak. Usteak", Labayru, 1990, 13.orr.). Argitalpen kontuekin gabiltzanez, galdetzekoa litzateke Aita

Mokoroak zergatik idatzi zuen lan hori erdaraz. Izan ere, Axularren bidea hobetsiz, Larramendirena ez baitu beti zuzenesten: "Mientras Axular con su libro dulce y útil ensanchó los horizontes al genio vasco, y avaloró a los ojos de euskaldun el euskera ayudándole a servirse de él para los altos fines de la vida; el P. Larramendi con su laboriosa argumentación dialéctica detuvo nuestra atención e interés en el euskera mismo, -y aun en su aspecto más accidental-, y contribuyó a despertar en nuestros espíritus cultivados el vanidoso prurito de la `diferenciación a todo trance'. En resumen: el método de Axular era el mejor para hacerle al lector, vivir su vida vascamente" (Genio y Lengua, 121.or.).

Halarik ere, Ibar-en baitan eraginkortasunaren erizpidea gailendu zela ondorioztatu beharko genuke. Erdaraz idatzi zuen Larramendik bere obra, baina euskararen alde, eta beste horrenbeste egin nahi bide zuen Mokoroak ere, andoaindarraren eragina ukaezina izan denez: "Bien es verdad que fué él quien nos hizo derivar hacia el euskera el natural sentimiento de la propia estima" (Ibid.,120.or.). Obraren itzal-neurria erizpidetzat harturik, Mokoroari bere jarraitzaileak "barkatu" egin diote erdaraz idatzi izana, Mitxelenarekin eta gero gertatu ez den bezala: Gero Erkiaga jauna mintzatu de eta esaten du Mokoroaren lana bikaña ta txalogarria benetan den arren, leengo puntura jota, euskerak baduela indarra, kemena, gaia ta giarra, besterenetik ez bizitzeko, Mokoroa jakintsuak eta beste batzuek adierazi bezala. Gizon jatorrenak, zergatik -egia da Mokoroaren lana eztala gaurko ta onako izan- zergatik beti jotzen degu beste izkuntzatara gure gauzak esateko ta adierazteko" ("De vida o muerte", Euskera, 1956, 282.or.).

Euskalari eta euskaltzale asko izan dira eta dira erdara darabiltenak beren idazlan eta ikerbideetan. Mokoroaren garaian Aitzol nabarmentzen da besteak beste. Aitzol alde batetik eta Lizardi bestetik: bi idazle-eredu beren hizkuntz hautapenari dagokionez. Gai honi buruzko gogoeta mamitsua burutu berri du Iñaki Larrañagak eta berak Aitzoli buruz idatzi duena, neurri handi batean, Mokoroari ere aplika diezaiokegu -gerra aurrekoari noski-. Iñakiren azalpena honetan datza: "Aitzoli dagokionez erdaraz idazteko zuen erraztasunaz gainera, badirudi erdaraz idaztearen arrazoiak bat baino gehiago izan daitezkeela: alde batetik, garaiko idazlerik irakurrienak erdaraz idazten zutela ikusirik idazle horien maila berdina erabiltzeko gai zela frogatu nahia. Prestijiodun hizkuntza erabili, prestijioa lortzeko asmoz ezkutuko konplexu baten ondorio bezala, eta bestetik, idazle erdaldunek egindako produkzioa irakurtzen zuen irakurlegoa bereganatzea ezinezkoa zela uste bazuen ere gutxienik irakurlego hori informatu nahia, hain zuzen, beste idazleek egindakoarekin bakarrik geldi ez zedin. Erdal irakurlegoa euskal arazoetaz informatu nahiak, beraz alde batetik, jasotzen dituzten informazio faltsuak eta distortsionatuak zuzendu nahiak bestetik, bultzatu zuela dirudi gehienbat erdaraz idaztera" (Jose Ariztimuño, AITZOL", Erein, 1988, 286.or.).

Euskararen ordezkapenaren eragileak

Terminologi kontzeptuak gorabehera, Aitzol, Ibar eta gerra aurreko beste zenbait euskaltzale hizkuntzen gizarte-auziak jorratzen hasi zirenez, euskal soziolinguistikaren hastapen-elementuak xehetzen aitzindari ditugu. Hizkuntz ordezkapenaren zergati ezkutu-sakonak arakatzeko ahalegin hura,

elebitasunaren inguruan Europan barrena gauzatu ziren urratsen lekuko izan nahi hura, meritu handiko gauza iruditzen zaigu. Soziolinguistikaren egungo garapena ezagutzeko paradarik izan ez zuten haiek, diglosia kontzeptuaren lilurarik eta estatistikaren xehetasun-ñabarduretan barneratzeko aukerarik gabe, lan erraldoi bat burutu zuten baldintzarik kaskarrenetan.

Euskararen atzerakada eta ordezkapena esplikatzeko asmotan, elementu batzuk behin eta berriro errepikatuko dira Mokoroaren lanetan. Elementu horien indar-eragina ere zehaztuko du inoiz, zein zeinen gainetik dagoen seinalatuz. Eta erdalkuntzaren prozesu hori, oro har, faktore arrotz eta modernoen baitan dagoela seinalatuko du. Arroztasunaren aipamena, etengabea da. Eta hizkuntzen arteko konpartimentazioan orekarik gabeko banaketa nabarmenduko du, bataren nagusitasuna eta bestearen menpekotasuna neurrigabekoa dela erakutsiz: "Los agentes exóticos que hoy `monopolizan todas las conquistas del progreso' no podrán menos de consumar su obra arrasadora, si a los agentes étnicos, perseguidos y maltrechos, ha de excluírseles de toda participación en las ventajas y forzándoles a que afronten por sí solos una lucha tan absurdamente desigual" (Genio y Lengua, 186.or.).

Euskararen atzerakada esplikatzeko erabiltzen dituen arrazoien artean, honako hauek azpimarratzen ditu gehienbat XIX. mendea baino lehenagoko aroari dagokionez. Erdialdeko euskalkien iraupena, neurri handi batean, topografi eta hizkuntz ukipen urriari zor zaio: hau da, isolamenduari. Bestalde, eremu-mugen galera eta murrizketa ezin omen da soilik aldagai sozial eta politikoen argitan erabat azaldu: "que no basta la geografía, ni bastan los acontecimientos sociales y políticos de ese siglo (XIX.az ari da) para explicar satisfactoriamente el fenómeno de la deseuskerización de Alava y Navarra; puesto que la lengua vasca se mantenía aún vigorosa en 1884 en Laphurdi, Zuberoa y Vizvaya, no obstante la geografía; y en las mismas regiones y en Guipúzcoa y Baja Navarra, a pesar de las transformaciones politico-sociales" (Ibid., 135.or.). Agente erdalduntzaileen eragina ez da berdina izan euskararen eremuan barrena.

XIX. mende amaiera arte euskaldunak ziren eskualdeak ere erdalduntzebidetan hasiak dira eta, orain bi elementu aipatuko ditu gertakari honen eragiletzat: Eskola eta inmigrazioa. Eskolaren ondorioak erabatekoak izan direla uste du, erakunde honen hizkuntz jokamoldea euskararen etsai nagusitzat jotzen bait zuen: "Nada digamos, en fin, de la persecución abierta y sistemática que contra el idioma y contra todas las características nuestras en general se ensaña a mansalva en colegios de enseñanza, en instituciones social-benéficas, a veces en los mismos asilos de la piedad religiosa" (Ibid., 59.or.). Elizarekin topo egin dugunez, eta Aita Mokoroaren ideia katolikoak eta jainkotiarrak mundu honetako gauzen gainetik baldin bazeuden ere, ez zen haatik isilik geratu erakunde honen erantzukizun historikoa salatzeko orduan. Ondorengo lerroalde honetan bereziki Nafarroan gertatutakoaz ari zaigu: "Si se llega a escribir un día la historia eclesiástica de aquel infortunado reino vasco, calcada en el estudio de las verdaderas realidades, allí aparecerá de manifiesto la activa participación que tuvo (y, por desgracia, sigue aún teniendo) el ministerio sagrado en la muerte del idioma natural de los navarros" (Ibid.,137.or).

Orain arte izendatu ditugun erdalkuntz faktoreei beste batzuk ere erantsi behar zaizkie.

Hain zuzen ere, horietako bat, azken boladan euskaltzale-andana batek, azkenean, egia bihurtu duen egitasmo-amets bat. Aspaldiko ametsa, Lizardik eta mamitu nahi zutena, egunkariarena. Hitzotan adierazten zuen Mokoroak arlo horretan euskaldungoak zeukan hutsarte makurra: "carecemos de un simple diario de información que atienda adecuadamente, en lengua vasca, la primera exigencia social del mundo moderno. En tanto, capitales `profesionalmente' vascos sostienen fuertes empresas periodísticas, inconsciente pero fatalmente ocupadas en acelerar no ya el afincamiento sino la hegemonía de la lengua extraña" (Ibid.,87.or.). Orain gauza berbera gertatzen dela burutatzen zaio edozein euskaltzaleri, baina, dirudienez, orduan ez bezala, "kontzienteki". Mokoroaren eskakizuna mamitu bazen ere, badakigu noiz-nola kaleratu zen EGUNA eta izan zuen biziraupen laburra. Sail honetan bertan, kultur eta informazio arloko bitarteko eta aparatuen eragin erdalduntzailea erabakiorra irudituko zaio Mokoroari. Hala bada, ohitura arrotzen ezarpena horien eskutik dator, besteak beste: "...tampoco es posible atajar la des-euskerización de un público forzado a ver y asociar y comparar y sentir y reaccionar continuamente según los modos erdéricos en el cine, la radio, la revista y la prensa, si no es fomentando hábitos vascos en contraposición a los hábitos extraños" (Ibid., 88.or.).

Euskararen barne-arazoak

Elebikuntzaren ondorioz euskal hiztunen gaitasuna gainbehera somatzen du. Inoizko euskaldun elebakarren altxorra, "esos `tipos'que son hoy nuestros primeros valores", galzorian dakusa. Euskararen erabilpen diglosikoak bere ondorioak dakartza hiztunen hizkuntz jatortasun eta aberastasunean, eta puntu hau beti izan zen bere kezka nagusietako bat: euskal arimaren adierazpideak berberezko sena galdu ahala euskal jenioaren suntsipena berarekin zekarren. Diglosiaren aspektu hau, hizkuntza beraren barne-gaitasunak urritzen eta kemena galtzen joate hori, belaunaldi-pare baten barnean kokatuz deskribatzen digu: "En cualquiera de nuestras poblaciones hoy bilingües que no lo fuesen hace treinta o cuarenta años, escójase un familia de la clase normal, en la que los padres pertenezcan a la generación *netamente euskaldun* y los hijos a la del período de transición; y anótese, lápiz en mano, las palabras y formas verbales, giros y modismos, que, abundando en el lenguaje de los primeros *no los usan ya* (aunque los entiendan) los segundos" (Ibid.,62.or.). Errosario hau, nork uka, oraindik ere bizi-bizirik dago. Orain kontatzen duenak oraintsu arte euskaldun izan direneko eskualdeak ditu gogoan. Aita Mokoroak, berriz, orduko elebikuntzaren baitan jadanik prozesu hori hedaturik zegoen eskualde-herriak. Batean eta bestean funtsean datu beretsuak hautematen dira; elebikuntzaren alderdi makurrok, inork isilarazteko motiborik duelako, ez dira behar adina baloratzen. Halako batean, euskaltzainen baten edo besten deia entzungo da hizkuntz ukipen zentzugabeak sorterazi dituen hiztun diglosikoen auzia planteatzeko, baina bien bitartean gure arteko diskurtso elebidunzaleak berean jarraituko du "aurrerakuntza" eta "modernitatearen" bidetik.

Aita Mokoroa "Ibar" zenean, *Genio y Lengua* liburuko euskaltzale sutsu hura, begiko egiten zaigu. Badakigu aurreritziz josia dagoela bere pentsamenduaren gunea: garai artan ideologia erlijioso mehar baten gatibu izateak zekartzan aurreritziez mintzo gara hemen. Kapitalismoak bere ibilbidean ekoizten zituen

emaitzen aurka eta Antzinako Erregimen zaharretik hurbil. Agian, euskara ideologia zaharkitu eta atzerakoi horren morrontzan ipini izanak, gerora Mokoroari ez zion ikuspegirik eman euskarak bere baitan zuen auzi inportante bat behar bezala planteatzeko. Bistan denez, batasunaren auzia dugu hemen, Mokoroaren ikuspegi meharren lekuko. Nik esango nuke, labur izateko, Mokoroak ez zituela zorrotz bereizi standardizazioaren inguruan hanhemenka zeuden ereduen artean, Estatuhizkuntza ofizialen batasun-bilakaera eta mintzaira diglosiko-menderatuen baldintza gordinak. 1971an argitaratu zuen *Lengua vasca de hoy de de mañana*-n, euskalkien alde finkatzen duen dotrinan arrazoizko gauza asko esaten badu ere, batez ere *corpus*-aren normalkuntzari dagokionez, ez du azterpide eta ikuspegi askirik erakusten *status*-ari dagokionean. Gertatzen da gainera, Cobarrubiasek eta beste soziolinguista askok dioen bezala, *status plangintzaren* mendeko gertatzen dela *corpus plangintzarena*, eta oinarrizko erizpide nagusi horien lehentasunauziak begiz oker jotzean, azkenerako funtsik gabeko diskurtso batekin geratu direla Euskaltzaindiaren bidetik urrun aldendu direnak. Aski dira Mitxelenaren hitzok batzuk eta bestek zein urrun zebiltzan jakiteko: "Ez dut uste ezertarako balioko lukeenik Aita Mokoroarekin eztabaidan hasteak: oinarri komunak behar horretarako, eta horrelakorik guti ageri da gure artean" ("Idazlan hautatuak", 395.or.). Ez da arlo horretakoa bakarrik desadostasunaren zioa. Mitxelenak besterik ere gogorarazten dio, Ibar zeneko garaietan barak egiten zituen eskakizunen zedarriak zabal-oparogoak zirelakoan. Bata eta bestea irakaskuntzaren ahalmen-mugez honela ageri dira Mitxelenaren luman: "Irakaskuntzan Aita Mokoroak euskarari ipintzen dizkion zedarriak, ordea (ik. 57 or. eta hurrengoak), murritzegiak iruditzen zaizkit. Bestela esan, Aita Mokoroak uste du orain ere (eta ez 1936an) muga horietatik irten gabe bizirik iraungo duela. Nik, ez. Muga horien barrutian dagoeino, segur naiz, heriotzera doa, bihar eguzkiak egungo ordutsuan beste agerraldiren bat egingo digula bezain segur. Eta nahiago nuke, mila bider nahiago, uste hori ustel agertuko balitz" (Ibid.,396.or.).

Plangintzagiletan aitzindari

Aita Mokoroaren gogoeta filosofiko-linguistikoa euskal jenioaren ardatzean garatua dago. Zer den hori?. Egungo egunean, ideologo espainolisten aldetik jasan dugun erasoan euskaldunok ikuspegi esentzialista horretan kokatu gaituzte. Mokoroaren eta Artetaren definizioak, hitzak hitz, funtsean gauza bera dira. Tolosarrarentzat euskal jenioa zeran datza; "igual a esencia de la nacionalidad", eta nafarrak termino horren ordez *Volkgeist*darabil; "Pues si la lengua fuere expresión de un *Volkgeist*, depósito de una particular visión del mundo -como querían los románticos-..." (puntu honi dagokionez, ikus "Euskal Herria y el euskara: de ideas y realidades", Alvaro Moreno Bergaretxe y Endrike Knörr, D.V., 1991-III-9).

Finlandian, Provenzan eta bestetan bezala, poema epiko garaiaren lilurapean bizi zen Mokoroa ere bere garaikideen antzera. Delako *Volkgeist* hori jaso eta hedatuz, euskararen zoria beste bat izango zelakoan: "en el poema *Euskaldunak* de `Orixe' tiene ya el pueblo vasco el instrumento virtual de su re-generación (...) Quisiéramos comunicar a otros nuestra persuasión de que, una vez dueño el renacentismo vasco de este resorte, tiene ya en su mano *la clave de nuestra civilización* y, con ella, *la suerte futura de la nacionalidad*"

(Ibid.,194.or.). Aldian aldiko ameskeriak. Aldi hartako euskaltzaleen ustea hori baldin bazen, horrelako euskarri hutsal bati esker hizkuntz zuzperraldia erdiestekoa alegia, gurean beste era bateko ilusioak gailendu izan dira. Bat edo beste aipatzeko, horra hor lehenik Ikastolen mugimenduan ezarritako itxaropena eta geroago Euskal Telebistarena. Hemen ez da inor salbatzen.

Mokoroaren glotopolitika aplikatua, egia esan, literaturaren ardatzean uztartzen da, baina komeni da hori aitortzean, zehatz-mehatz zer adierazi nahi zuen jakitea. Izan ere, hitza arrunt zentzu zabalean darabil: "La salvación del euskera y, por consiguiente, todo el porvenir de la educación vasca de nuestro pueblo, depende del *éxito de la actividad literaria*", baina "Al hablar, pues, de literatura, nuestro pensamiento no excluye producción alguna, gráfica u oral, de las que se destinan al público, sea cual fuere el medio difusor por el que lleguen hasta él: libro, periódico, tribuna, teatro, disco de gramófono, radio, film..." (Ibid.,38.or.). Euskarriok, hizkuntz erreprodukziorako eta zabalkunderako, harako literatur ekoizpen hura baino sendoagoak iruditzen zaizkigu: hizkuntzaren eta gizartebotererearen arteko lotura-harremanak gero eta hertsiagoak nabarmentzen dira kapitalismoa garatu ahala. Aitzol eta Altube ("La vida del euskera", Euskera, 1933) ohartzen hasiak daude Estatu modernoaren ondorio linguistiko bateratzaileez eta, hainbestean, Estatuaren aparatu ideologikotzat izendatzen ditugun erakunde-euskarri guzti horiek (eskola, kultur eta informazio aparatuak,...) ezinbestekotzat jotzen dituzte euskararen transmisiobiderako. Ez da ahantzi behar, *Genio y Lengua* testuinguru horretan txertatzen dela eta autore horien eragina ukaezina dela sarrerako ohar batean aditzera ematen zaigun legez: "trabajos muy de actualidad en el momento de escribirse la parte esencial de este trabajo".

Euskararen aldeko plangitzan teorizazioan, *corpus*-arenean ez ezik *status plangintzaren* ere badu Mokoroak bere lekua, ondo irabazia gainera. Hor daude bere lanak: "Programa de acción" (Genio y Lengua, 230.or.) eta "Operación de salvamento" (De vida o muerte, Euskera-1956,274.or.) zor zaion begirunearen lekuko. Bazuen itxaropenik, egin behar zena eginez, euskara bere onera ekartzeko. Suomiar, txekiar eta beste esperientzia batzuren jakitun ziren neurrian, haiek egina euskaldunok egiten bagenuen, burua jasoko genuela alegia: "Nik dakidana da Europa'ko edozein alderditan bizirik iraun dutela, bizi bizirik eta gorengo malletaraño jasota, noizpait, orain dela urte mordoska bat, iltzeko zorian zeuden izkuntzik geienak" ("Euskeraren etorkizuna").

Amaitzeko, ene adiskide dudan Joxean Agirreren lerrook ondo baino hobeto aurkezten dute euskaltzale handi honen perfila eta galera: "Con él desaparece uno de los últimos y más preclaros exponentes de una generación que tomó parte en la recuperación cultural y lingüística de la preguerra. Diseñó todo un plan práctico para la recuperación del euskera y ha visto realizado uno de los capitulos más importantes de ese plan: la recuperación del habla popular en forma de locuciones" * (EGIN, 90-XI-8).

Joxe Manuel Odriozola

* Oharra:

Justo Mocoroa Mugica., *Repertorio de locuciones del hablar popular vasca*, (2 liburukitan). Ortik eta Emendik argit., Labayru Ikastegia.